

MARIA JESUS LOPEZ LOPEZ

Bizitza osoa barkillo eta karamelo artean

Barkillo-potea hartu eta herririk herri, festarik festa, auzoz auzo barkilleroa ibiltzen zeneko garaia ia ia ahaztuta daukagu. Gaur egun hauentzat ere dexente aldatu dira gauzak; ez dago lehengo konturik, oraindik orain ere batetik bestera ibiltzen direnak gutxienez furgonetan egiten baitute



Gaur egun horrelakorik ikusi ez arren, bere gurasoek erabilitako barkillo-potea estimatu dauka Maria Jesusek.

joan-etorria. Eta azken urteotan hiri eta herri gehienetan karamelo, txikle, pipa, globo eta abar eta abar saltzeko dendak ugaritu dira.

Maria Jesusen gurasoak, Pedro eta Margarita, biak barkilleroak, orain dela 61 urte inguru etorri ziren Oñatira, ezkonberritan.

-Nondarrak ziren zure gurasoak?

Ama Bergaran bizi zen baina biak ziren Santanderkoak.

-Eta orduan ere barkilleroak ziren ala geroko kontua izan zen hori?

Bai, bai, orduan ere bai. Aita 18 urterekin Frantzia ibili zen lanean, automobil fabrika baten eta gero Valladolid-en barkillero. Amaren familiakoak ere barkillero bezala etorri ziren Bergarara.

-Esaten denez, Santander aldean jende asko ibili izan da lan horretan...

Bai, hala da. Gure aita *pasiegoa* zen, Pas haraneko San Pedro del Romeral-ekoa, eta sasoi hartan herri osoa barkillo lanetan ibiltzen omen zen. Martxoan etxetik irten eta urri aldera itzultzen ziren; udaberri eta udan barkilloekin irabazitakoarekin bizi behar izaten zuten urte osoan.

-Herririk herri ibiltzen ziren?

Ez, normalean herri baten geratzen ziren fijo samar, ez ziren batera eta bestera ibiltzen.

-Gustatzen al zitzaion lan hori?

Ez dakit, orduan ez zegoen non

aukeratu eta horrexeri oratu behar izan zion, bere bailarako beste askok bezala.

-Gero Oñatin...

Hemen ere hasieran barkillo-potea besterik ez; potea husten zenean etxera.

-Zenbatean saltzen ziren barkilloak?

Badakizue barkillo potea nolako den, ezta? Ba, begira, tirada bakoitzak horrenbesteko bat balioko zuen, txakur haundia, erriela edo dena delakoa. Norberak eragin erruedatxoari eta makilatxoaren zentzuan geratu, huraxe izaten zen tokatzen zitzaion barkillo kopurua: bostean geratzen zela, ba, bost barkillo.

-Etxean egindakoak, jakina...

Bai, bai, lehen eta orain; orain ere etxean egiten ditugu.

-Eta non saltzen ziren barkilloak?

Igandetan ama Plazentziara joaten zen trenean; hil arte domekero-domekero joan zen. Aita, berriz, Legazpira. Aitari entzunda daukat gerra ostean Patrizio Etxeberriano langileei ez zietela dirutan ordaintzen; garbantzoak, lentejak eta

ARANBYRY

Pintura orokorrean

Garbidenda

Paper margotuak

Koadroetako marko denda

Kale Barria, 47. Tfnoa: 78 19 99 OÑATI



AMETS TAILERRAK

HERGO karabanen banatzailea

Karabanak. Autokarabanak. Mota guztietako erremolkeak

Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu

SALMENTA ETA ALOKAIRUA

Berezan auzoa. OÑATI. Tfnoak: 78 25 92 / 78 19 50

horrelakoak ematen zizkietela eta berak ere barkilloen truke horrelako janariak etxeratzen zituela.

-Eurak kanpora joanda, nor geratzen zen hemen?

Astegunetan aitak eta amak egiten zuten hemengo, baina jaiegunetan amaren anaiak etortzen ziren Bergararik.

-Barkillero bakarrak ziren Oñatin?

Ez, ez; gure aitak esaten zuen gerra ostean 18 bat elkartu izan zirela plazan Korupus egun batean; baziren beste batzuk ere.

-Esan duzu hasieran barkilloa zela egiten zuten bakarra; gero, karameloak eta bestelakoak...

Etxean barkilloaz gain, paperean batutako piruli luzezka batzuk egiten ziren eta gainetik barkilloa zeukaten barko erako karameloak, baita mailuka itxurakoak ere.

-Eta koreanoak eta helatua ere on askoa!

Bai, koreanoak geroxeago etorri ziren eta oraindik ere egiten ditugu baina negu partean bakarrik. Izan ere, kontserbanterik ez daramatenez, beroarekin urtu egiten dira eta.

-Hori al zen eskeintza gutzia?

Bai, eta ordurako ez zen gutxi. Etxean egindakoaz gain Solano etxeko karamelo batzuk, *Blok* izeneko karamelo karratu haundi batzuk, *Bazooka* txikleak eta kitto, horrekin betetzen zen mahaia. Ez zen besterik saltzen, egon ere ez zegoen. Gainera bizimodua ere oso diferentea zen; tabernetara ere ez zen orain bezala joaten, gizonak bakarrik joaten ziren, andrak ez.

-Gaztainak ere saldu izan dituzue?

Bai, makina bat urtean eduki izan ditugu Domu Santuetan hasi eta Gabonak arte. Baina orain ez ditugu saltzen, horretarako beste pertsona bat beharko genukeelako.

-Gerra ostean izango ziren barazoak azukarra, uruna eta



Duela 46 urteko Korpus Egunean egindako familia-argazkia helatuen karrotxoan aurrean. Goitik hasita, eskumatik ezkerre: Margarita, ama; Pedro, aita; Feliciano, amaren anaia eta Ester, lehengusina eta umezaina.

Beheko ilaran: Eibarko lehengusu bat; Benilde, lehengusina; Santiago eta Manolo, anaiak eta Maria Jesus bera 5 urte zituela

horrelakoak lortzeko?

Bueno, uruna hainbestean ere eskuratzen zen. Azukrarekin ibiltzen ziren okerrago. Gure aita Gastizera joaten zen trenean eta kilotoxoa batzuk zuzentzen zituen han.

-Mahaia beti plazan eduki izan duzue, ezta?

Bai, bai, nire akuerdian behintzat bai, goratxoago edo beheratxoago baina plazan. Hasiera batean, estanko zaharra esaten zitzaioneko aurrean; gero, telefonoa dagoen inguru horretan; domeketan bietan, mahai bat goian eta besta behean; eta duela dozena bat urte edo txabolatxo plaza barrenean jarri genuen eta handik gutxira, beste aldera, orain gauden lekura, pasarazi gintuzten.

-Domeketan Arantzazura joaten zarete...

Bai, Jaungoikoari esker; kalekoarekin bakarrik gaur egun ezer ez dago eta.

-Betiko lekua plazan euki arren, auzoz auzo, festarik festa, jendea nora barkilleroa hara, ibili zarete urtetan...

Barkilloak eta koreanoak gurasoek erakutsi bezala egiten ditugu eta badaukate euren sekretotxoa.

Bai, auzo guztietako erromerietara joan izan gara, Koiskarrera ere joaten zen nere gizona. Gaur egun hori ere aldatu egin da; alde batetik erromeriak gutxitu egin dira eta bes-

etik jende gaztea ere tabernetara gehiago joaten da; orain Olakua eta Trianara joaten gara baina askoz gehiago ez.

-Eta zineko ate aurrekaldera eta uda partean Usakora...

Aspaldiko kontuak dira horiek. Urte askoan joan ginen *Aloña* eta *Garoa* zinetara otzara besapean hartuta, jendea sartu arte itxoin, eta gero neu ere pelikula ikusten geratzen nintzen.

-Lehen kontuak alde batera utzita, goazen gaurkoak aipatzera. Lehen lau gauzatxorekin mahaia betetzen zela esan diguzu, gaur egun zer?

Gaurkoa ikaragarria da, 100-150 gauza diferente dago; ez pentsa esageratzen ari naizenik. Astero ekartzen dute zerbait berria, batez ere patata, artoa eta horrelakoak.


ELKORO C. B.
KRISTALDEGIÀ

San Lorenzo, 13 B
Lazarra, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06. OÑATI

Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko leiho
eta pertsianak
P.V.C
Poliuretano
CLIMALIT



SANTA CRUZ

METALEZKO ERAIKUNTZAK
Galdereria. Errementeria

Goribar, 5 Tfnoa: 78 10 06 Faxa: 78 33 36 OÑATI



poltsatan ateratzen direnak; haien artean izango dira 50etik gora diferenteak.

-Zer da gehien saltzen dena?

Gomazko karameloak eta pipak. Oraingoa ez da lehengo gomazko karamelo bigun hura, oraingoa goma gogorra da eta ona bada Holandatik ekarritakoa da. Hemen ere saiatu izan dira hangoa imitatzen, baina ez dauka antzik ere; hangoa benetan ona da.

-Zuen bezerorik onenak umeak direla pentsatzen dugu, baina jende heldua ere hurbilduko zaizue?

Bai, zinera doazenak eta, nahiz eta zinera ere lehengo aldean oso jende gutxi joan. Gero, kiroldegira doan jendeak ere bidean hartzen gaitu. Edadeko pertsonentzat ere eroso da guregana etortzea: karameloak paketatuta gertu izaten ditugu eta ez dauka norberak apartatzen ibili beharrik.

-Norberak hartzeko kontu hori aipatu duzu; azken urte hauetan izugarri ugari dira era horretako gozoki dendak, hemen ere badaukagu pare bat; zuek ere igarriko duzue, ezta?

Bai, asko igartzen da; orain ez bakarrik gozoki dendetan, bestelako dendetan ere karamelo eta gozoki ugari saltzen da.

-Beraz, alde horretatik ere izugarri aldatu dira gauzak.

Izugarri, eta ez honetan bakarrik, ez produktuan eta saltzeko moduan bakarrik, umeak ere aldatu egin dira, lehengoak umeak ziren eta oraingoa...

-Zer dira ba?

Ez dakit. Lehen ere beti egoten zen bat edo beste espabilituagoa, lotsa gutxiago zeukana, baina orain ez dira bat edo beste, orain ia denak dira horrelakoak. Jende nagusiarekin ere beste tratu bat izaten genuen. Izan ere gutxiago ginen eta akaso horregatik gehiago apreziatzen gintuen jendeak. Orain dena da diferentea.

-Gaurko umeak diru gehiago erabiltzen dute esku artean?

Bai. Dena dela, esango dizuet krisi denporan guk ere berdin berdin igartzen dugula; normala den legez, etxean diru gutxi baldin badago, umeak ere paga txikiagoak hartuko dituzte. Orain uste dut egoera apurtxo bat normaldu egin dela Oñatin, bolada honetan lana badagoela eta hori nabaritzen da.

Telebistak eragin handia dauka haurrengan. Gaurko umeak telebistan zer ikusi, haxe eskatu.

-Zure ustez telebistako iragarkiek ba al daukate eraginik umeengan?

Bai, galanta. Normalean telebistan ikusten dituzten gauzen bila etortzen dira. Halako eta besteko gozokiekin kromoak ematen dituztela esan eta denak zoroen pare haretxen bila. Sekula amaituko ez duten kromo bildumak egiten dituzte, beti falta da bat eta. Erraz

engainatzen dituzte iragarkiekin.

-Ba al dago gozokirik umeak ez baina gurasoek erosten dutenak, umeei ilusioa egingo dielakotan?

Gurasoek normalean gusanitokak eta globoak nahi izaten dituzte, baina umeek ez; oso txikiak diren bitartean, gurasoek hori egin ahal izaten dute, baina urte pare bat euki orduko umeak ezetz esaten du eta

Gomazko karamelarik onena Holandatik ekarritakoa da.

kitto. Kolore askotako karamelo eta paketeak dira erakargarrienak. Zenbat eta kolore gehiago gustokoago.

-Zuen txokotxo horretatik plaza inguruko gorabehera guttien berri izango duzue...

Bai, izan ere, bai herritarrek, bai herria ikustera datozenek plaza aldera jotzen dute eta atzera-aurrera haundia izaten da inguru honetan. Kanpoko jende asko etortzen zaigu urte osoan, baina, batez ere uda parteko igande arratsaldetan turismo bulegoa non dagoen, eliza ikusteko

zer egin behar den, taxiak non hartzen diren eta abar galdezka. Antza denez, Arantzazutik bueltan edo, herria ikustera gelditzen dira eta ez dakit zergatik ez den turismo bulegoa zabalik egoten.

-Euskaraz zer moduz moldatzen zara?


Umeekin ulertzeko beste bada- kit, baina konbersazio luzeetan galdu egiten naiz. Dena dela, nere garaian euskaraz hitzegitea gaizki ikusia zegoen eta, batez ere nesken artean, ez zen euskaraz hitzegiten. Gizakumeen artean, aldiz, gehiago egiten zenez, nere bi anaiek oso ondo egiten dute berba.

-Gustokoa duzu lanbide hau?

Ez, ez zait sekula larregi gustatu izan, baina norbaitek heldu behar zion eta niri tokatu zitzaidan anaiek fabrikara joan ziren eta. Baina gizonak eta biok jarraitu dugu honetan.

-Jarraipenik izango al du zuen familian?

Ez dakit, zaila da hori esatea. Nere seme-alabentzat nik neuk beste zerbait nahi nuke eta eurek ere, ahal badute behintzat, ez diote bide honi helduko. Baina hori ezin da jakin... Denborak esango du.



Maria Jesus eta Ezequiel, bere senarra, gaur egungo kioskoan.

IRIZAR
TABAKOAK
Paperdenda • Loto • Loteria
Foruen Enparantza, 6. Tfnoa: 78 00 15 OÑATI

BITTOR **FAGOR**
ALTZARIAK
Sukalde eta elektragailuak
Proiektu bidez
etxerako altzari guztiak
San Lorenzo, 1 eta 41. OÑATI
Tfnoak: 78 16 08 eta 78 34 21. Faxe: 78 34 21